

PROYECTOS ARTÍSTICOS 14

Environments

Jon Gorospe

Inauguración: 11 de diciembre, 20:00
Fechas Exposición: 11 de diciembre de 2014 a 11 de enero de 2015

CONTACTO PRENSA

+34 945 161 830

e-mail: info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org

Montehermoso presenta los proyectos seleccionados en la convocatoria Proyectos Artísticos 2014. El objetivo de esta convocatoria es hacer visible el trabajo de las y los artistas locales mediante el apoyo a la producción y difusión de su trabajo. Los proyectos seleccionados se presentan dentro de la programación del Centro Cultural Montehermoso.

Environments

Jon Gorospe

11 de diciembre de 2014 a 11 de diciembre de 2015



Jon Gorospe, (Vitoria-Gasteiz, 1976). Grado Universitario en EASD, VDA Lithuania y proyecto final en Malta. Vive y trabaja en Vitoria-Gasteiz. www.jongorospe.com

Proyecto audiovisual compuesto por 8 fotografías y 2 películas HD.

“La manera en que nos aproximamos a la ecología define en lo fundamental el modo en que hoy construimos la ideología. Ideología en el sentido clásico de una forma ilusoria de pensar y percibir la realidad. La ideología se refiere a problemas muy reales, pero los mistifica.”

Slavoj Zizek.

Environments

El origen de este proyecto podría contarse como se cuenta un cuento corto y se hace una pregunta.

El cuento:

Una civilización, en un momento dado de su evolución, comienza a negar el desecho que produce. Y lo niega con la tenacidad de quien –en el bloqueo psicológico que sigue a una catástrofe– es incapaz de asimilar lo sucedido. Sin embargo, muy pronto se evidencia que dicha negación actúa con rodeos, con estructura y con sus propios resortes. Resortes que vuelven opaco el lugar del siniestro e invisibilizan los desperdicios.

De esta manera, la opacidad acaba convirtiéndose en el mecanismo predilecto de la negación: es la retórica y la estética del *no*. Se opaca aquello que no se asume. Como en la culminación de un truco óptico, asistimos a la desaparición de lo traumático en forma de camuflaje, esto es, de ideología. Si uno mira, no se ve; si uno intenta imaginarlo, no puede.

Acercarse a los vertederos, a las plantas de reciclaje, a los cementerios nucleares o a unas bolsas de basura es acercarse al gran museo de la negación, al repertorio más completo del ocultamiento.

Y la pregunta:

Una pregunta que es un acicate y un desafío: ¿cómo acercarse a esos espacios marcados por el tabú y mirarlos no solo con fascinación sino también con la más ingenua perplejidad?, ¿cómo mirarlos con la fragilidad, el asombro e incluso el fervor previo con que miramos lo que entendemos como hermoso?

Rubén Arias

La Exposición (una posible respuesta)

Proyecto audiovisual compuesto por 8 fotografías y 2 películas HD.

El proyecto audiovisual consta de dos movimientos y una coda y su estructura es como sigue:

Primer movimiento: Oceans

Se trata de una secuencia fílmica en la que mediante un sol plano, se muestra la intensidad del cambio que la acción de los seres humanos ha provocado en los océanos.

Segundo Movimiento: Midair

Se trata, de nuevo, de una secuencia de plano fijo que muestra el cambio producido en el aire debido a la polución de origen humano.

Coda: Dump

Como el concepto musical de coda deja entrever, sección es una expansión y también una síntesis de los dos movimientos anteriores. Se trata de la parte fotográfica del proyecto y consiste en una serie de fotografías realizadas en espacios destinados a contener y/o ocultar el residuo.

El pilar del trabajo en su línea física consiste en una instalación compuesta por una pantalla que, montada al aire, ocupa el centro de la sala y permite una doble visualización.

En las paredes de la misma sala, rodeando a la pantalla se expone la serie de fotografías. Todo el entramado visual de la exposición va acompañado simultáneamente de la sección acústica de las dos grabaciones.

PROIEKTU ARTISTIKOAK 14

Environments

Jon Gorospe

Inaugurazioa: Abenduaren 11n, 20:00
2014ko abenduaren 11tik 2015eko urtarrilaren 11ra

PRENTSA KONTAKTUA

+34 945 161 830

e-mail: info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org

2014ko proiektu artistikoen deialdian hautatutako proiektuak aurkezten ditu Montehermoso Kulturuneak. Deialdiak bertako artisten lanak bultzatzea eta erakustea du xede. Aukeratutako proiektuak Montehermoso Kulturuneak antolatzen duen egitarauaren barnean aurkeztuko dira.

Environments

Jon Gorospe

2014ko abenduaren 11tik 2015eko urtarrilaren 11ra



Jon Gorospe, (Vitoria-Gasteiz, 1976). Arte eta Goi-Mailako Diseinu Eskolako unibertsitate gradua, VDA Lithuania eta azken proiektua Maltan. Gasteizen bizi eta lan egiten du.
www.jongorospe.com

Ikus-entzunezko proiektu hau 8 argazkik eta bi HD filmek osatzen dute.

"Ekologiara hurbiltzeko dugun moduak egun ideologia eraikitzeko dugun modua definitzen du funtsean. Ideologia pentsatzeko eta errealitatea ikusteko ilusiozko modu klasikoaren zentzuan hartuta. Ideologia oso arazo errealei dagokie, baina faltsutu egiten ditu."

Slavoj Zizek

Environments

Proiektu honen jatorria ipuin labur bat kontatu eta galdera bat egiten den bezala azal liteke:

Ipuina:

Zibilizazio batek, bilakaeraren une batean, ukatu egiten du sortzen duen zaborra. Hondamendi baten ondorengo blokeo psikologikoa dela eta, gertatutakoa bereganatzeko gai ez den pertsona batek bezain burugogor ukatzen du. Nolanahi ere, berehala geratzen da agirian ukapen hori itzulinguru, egitura eta bere euskarri propioen bidez egiten dela. Ezbeharraren lekua opaku bihurtu eta hondakinak ikusezin bihurtzen dituzten euskarrien bidez, hain zuzen ere.

Horrela, opakutasuna ukoaren mekanismorik gustukoena bihurtzen da: ez-aren erretorika eta estetika da. Norberaren gain hartzen ez dena bihurtzen da opaku. Truku optiko baten amaieran bezala, traumatikoa desagertu egiten da kamuflatuta, ideologiaren baitan, alegia. Begiratzuz gero ez da ikusten; irudikatzen saiatuz gero, ezinezkoa da.

Zabortegei, birziklatzeko lantegi, hilerri nuklear edo zabor poltsetara inguratzea ukoaren museo handira hurbiltzea da, ezkutatutakoaren bildumarik osoenera.

Galdera:

Aldi berean akuilu eta erronka den galdera: Nola hurbildu tabu diren alor horietara, eta liluraz gain txundimen xumez begiratu? nola begiratu horiei edertzat duguna begiratu aurretik izaten den gogo bizi, hauskortasun eta txundiduraz?

Rubén Arias

Erakusketa (balizko erantzun bat)

Ikus-entzunezko proiektu hau 8 argazkik eta bi HD filmek osatzen dute.

Ikus-entzunezko proiektuak bi mugimendu eta bi koda ditu, eta honela egituratzen da:

Lehen mugimendua: Oceans

Film-sekuentzia bat da eta, plano bakar baten bidez, gizakion jardunak ozeanoetan izan duen eraginaren intentsitatea erakusten du.

Bigarren mugimendua: Midair

Hau ere plano finkoko sekuentzia dugu, eta gizakiok sortutako kutsadurak airean eragin duen aldaketa erakusten digu.

Koda: Dump

Musika arloko koda kontzeptuak iradokitzen duenez, zabalpen bat eta aurreko bi mugimenduen laburpena da. Proiektuan argazkigintzari eskainitako atala da eta hondakinak jaso edo ezkutatzeko guneetan egindako argazki seria batek osatzen du.

Alderdi fisikoari dagokionez, airean zintzilikatutako pantaila baten instalazioa da lan honen ardatz; pantailak aretoaren erdialdea hartzen du, ikuspen bikoitza ahalbidetuz.

Pantaila hori inguratuz, argazki seria dago ikusgai aretoaren hormetan. Erakusketaren ikusizko atalari aldi berean bi grabazioen atal akustikoak laguntzen dio.